

## I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Batzar Nagusiak / Juntas Generales

**7/2012 FORU ARAUA, urriaren 31koa. honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren iraunkortasunerako kontseilua sortzen da; haren osaera eta funtzionamendua arautzen dira, eta bizkaiko iraunkortasunerako institutua azkentzen da.**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2012ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran onartu dutela 7/2012 Foru Araua, urriaren 31koa, zeinaren bitartez Bizkaiko Lurralde Historikoaren iraunkortasunerako kontseilua sortzen baita, haren osaera eta funtzionamendua arautzen baitira eta bizkaiko iraunkortasunerako institutua azkentzen baita; eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2012ko azaroaren 16an.

Bizkaiko Ahalduen Nagusia,  
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

**NORMA FORAL 7/2012, de 31 de octubre, por la que se crea el consejo para la sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, se regula su composición y funcionamiento y se extingue el instituto para la sostenibilidad de Bizkaia.**

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 31 de octubre de 2012, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 7/2012, de 31 de octubre, por la que se crea el consejo para la sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, se regula su composición y funcionamiento y se extingue el instituto para la sostenibilidad de Bizkaia, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

Bilbao, a 16 de noviembre de 2012

Diputado General de Bizkaia,  
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

**URRIAREN 31KO 7/2012 FORU ARAUA. HONEN BIDEZ, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN IRAUNKORTASUNERAKO KONTSEILUA SORTZEN DA, HAREN OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DIRA ETA BIZKAIKO IRAUNKORTASUNERAKO INSTITUTUA AZKENTZEN DA**

HITZAURREA

Azaroaren 12ko 6/2008 Foru Arauaren bidez, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu zen; honako hau zen helburua: institutua Lurralde Historikoaren garapen iraunkorrerako politiken behatoki bihurtzea, Bizkaia 21 programaren barruan (2005-2011). Programa hori garapen iraunkorrerako Bizkaiko Foru Aldundiaren Estrategia zen, eta Aalborg +10 konpromisoei erantzuten zien. Konpromiso horiek Hiri eta Herri Iraunkorren Europako IV. Konferentzia erabaki ziren, Aalborgen (2004).

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortu zenean, helburu hau lortu nahi zen, bestea beste: Lurralde Historikoaren iraunkortasunerako politiketan Batzar Nagusiek duten parte-hartzea indartzea, Administrazio Kontseiluan duten ordezkariaren bidez.

Gaur egun, Bizkaia 21 programa berrian (2011-2016) daude jasota Bizkaiko Foru Aldundiak garapen iraunkorraren alde egiten dituen politikak. Oraingo programan, aurreko estrategiak emandako esperientzia oinarri, Aalborg +10 konpromisoei erantzun nahi die Aldundiak.

Bizkaia 21 programak lerro estrategikoak ezartzen ditu iraunkortasunaren printzipioak Foru Aldundian txertatzeko, eta, horrez gainera, garapen iraunkorrerako helburu espezifikoak ezartzen dizkie foru sail guztiei. Helburu horiekin batera, kudeaketa-adierazleak ere ezartzen ditu, hartutako konpromisoen jarraipena egin ahal izateko.

Garapen iraunkorra lortzeak foru politika guztiak gidatu behar ditu, zeharkako izaera baitu. Hori kontuan hartuta, sail guztiei dagokie Programan ezarritako lerroak garatzea eta, beraz, Bizkaia 21 en helburuak betetzeko erantzukizuna.

Bizkaian garapen iraunkorraren alde egiten diren politiken zeharkotasun-printzipioa benetan eraginkortasunez ezartzeak zailtzan jartzen du Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren existentzia erakunde autonomo gisa.

**NORMA FORAL 7/2012, DE 31 DE OCTUBRE, POR LA QUE SE CREA EL CONSEJO PARA LA SOSTENIBILIDAD DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA, SE REGULA SU COMPOSICIÓN Y FUNCIONAMIENTO Y SE EXTINGUE EL INSTITUTO PARA LA SOSTENIBILIDAD DE BIZKAIA**

PRÉAMBULO

Mediante Norma Foral 6/2008, de 12 de noviembre, se creó el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia con el fin de constituirse en el observatorio de las políticas de desarrollo sostenible del Territorio Histórico, en el marco creado por el Programa Bizkaia 21 (2005-2011), Estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia por la Sostenibilidad, que daba respuesta a los compromisos de Aalborg +10, acordados en la IV Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles, celebrada en Aalborg en 2004.

Uno de los principales objetivos perseguidos con la creación del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia era fortalecer la participación de las Juntas Generales en las políticas de sostenibilidad del Territorio Histórico, a través de su representación en el Consejo de Administración.

En la actualidad, las políticas de la Diputación Foral de Bizkaia a favor del desarrollo sostenible están recogidas en el nuevo Programa Bizkaia 21 (2011-2016) que, partiendo de la experiencia de la Estrategia anterior, igualmente persigue dar respuesta a los compromisos de Aalborg +10.

El Programa Bizkaia 21 marca las líneas estratégicas para la incorporación de principios de sostenibilidad en la Institución Foral y define objetivos específicos de desarrollo sostenible para todos los Departamentos Forales, acompañados de los correspondientes indicadores de gestión, que permitan hacer un seguimiento de los compromisos adquiridos.

Desde la consideración de que la consecución del desarrollo sostenible debe guiar todas las políticas forales con carácter transversal, corresponde a todos y cada uno de los distintos Departamentos el desarrollo de las líneas de acción previstas en el Programa y por lo tanto la responsabilidad del cumplimiento de los fines del Bizkaia 21.

La efectiva y real implantación del principio de transversalidad en las políticas que persiguen el desarrollo sostenible en Bizkaia cuestiona la existencia misma del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia como organismo autónomo.

Horrez gainera, Institutuak, organo deszentralizatu bat denez, hainbat gastu eragiten ditu, eta, ahal dela, murriztu egin behar dira, gastuari eutsiz eta gastua arrazionaltasunez eginez.

Ahaldun Nagusiaren ekainaren 29ko 138/2011 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta egin-kizunak zehazten dira.

Antolamendu horren ondorioz, eta Ingurumen Sailari dago-kionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 13ko 206/2011 Foru Dekretuak Ingurumen Sailaren egitura organiko berria arautu zuen, eta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren mende, Ingurumenaren Iraunkortasunerako Zerbitzua sortu zuen. Zerbitzuaren eginkizunen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: Bizkaia 21 programa koordinatzea eta Aldundiak onartu eta sustatutako iraunkortasunerako programak egitea eta koordinatzea.

Garapen iraunkorrerako politikak sustatzeko eta —gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoarekin bat— Bizkaiko Lurralde Historikoan gastu publikoa arrazionalizatzeko, proposatzen da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan iraunkortasunerako politikak sustatu eta kontrolatzeko. Kontseiluan, Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkari guztiek hartu ahal izango dute parte, erakunde autonomo batek berez eragiten dituen gastuak sortu barik.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzearekin batera, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua azkentzen da.

### 1. artikulua.—*Sorrera*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua sortzen da; Bizkaiko Lurralde Historikoaren iraunkortasunerako politiken arloan Bizkaiko Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremana, parte hartzea eta koordinazioa gauzatzeko organoa da Kontseilua.

2. Garapen iraunkorrerako politikak garatzeko eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailari atxikita egongo da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseilua, funtzionalki zein organikoki, eta arlo horretan eztabaidatzeko eta aholkuak emateko organo onularia izango da.

### 2. artikulua.—*Eginkizunak*

Honako eginkizun hauek izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseiluak:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren garapen iraunkorrerako politikak sustatzea.

2. Bizkaia 21 programaren eta Foru Aldundiak onar ditzan antzeko programen ekintza-lerroen aplikazioaren jarraipen eta kontrola egitea, besteren eskariz zein berenez.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak bere eskumenen barruan sustatu eta Bizkaiko Lurraldearen garapen iraunkorrean eragina duten plan eta programei buruzko txostena egitea.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Udaleei, haien eskariz, aholku ematea iraunkortasunaren arloko finantzaketa-programei buruz, arlo horretako udal politikak garatzeko.

5. Barne-funtzionamendurako arauak onartzea.

### 3. artikulua.—*Osaera*

1. Gehienez ere 12 kide izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren Iraunkortasunerako Kontseiluak; kopuru bera izango dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek, eta Batzar Nagusietako talde bakotxaren gutxienez ordezkari bana izatea bermatuko da.

2. Garapen iraunkorrerako politikak koordinatzeko eskumena duen saileko foru diputatua izango da Kontseiluko burua. Kontseiluko buruak ez du kalitateko botorik izango.

Además, el carácter descentralizado del Instituto viene generando una serie de gastos que en aplicación de los principios de racionalidad y contención del gasto deben ser, en la medida de lo posible reducidos.

Mediante decreto Foral del Diputado General 138/2011, de 29 de junio, se dispuso la nueva organización de los Departamentos Forales, sus áreas de actuación y funciones.

Derivada de esta nueva organización y por lo que respecta al Departamento de Medio Ambiente, mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 206/2011, de 13 de diciembre, se reguló la nueva estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente, con la creación en dependencia de la Dirección General de Medio Ambiente del Servicio de Sostenibilidad Ambiental, entre cuyas funciones cabe resaltar la coordinación del Programa Bizkaia 21 y la elaboración y coordinación de los programas de sostenibilidad aprobados e impulsados por la Diputación.

Con el doble objetivo de impulsar políticas de desarrollo sostenible y racionalizar el gasto público en el Territorio Histórico de Bizkaia, de acuerdo con las circunstancias sociales y económicas concurrentes, se propone la creación del Consejo para la Sostenibilidad de Bizkaia, que ejerza las funciones de impulso y control de las políticas de sostenibilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, propiciando la participación de todos los representantes de las Juntas Generales de Bizkaia, sin generar los gastos propios de mantenimiento de un organismo autónomo.

La creación del Consejo para la Sostenibilidad de Bizkaia conlleva la extinción del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia.

### Artículo 1.—*Creación*

1. Se crea el Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, como órgano de relación, participación y coordinación de las políticas de sostenibilidad entre las Juntas Generales de Bizkaia y la Diputación Foral en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. El Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia estará adscrito funcional y orgánicamente al Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia con la competencia de coordinación de las políticas de desarrollo sostenible y tendrá carácter deliberante, asesor y consultivo.

### Artículo 2.—*Funciones*

El Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia tendrá las funciones siguientes:

1. Impulsar las políticas de desarrollo sostenible del Territorio de Bizkaia.

2. Realizar, a petición de terceros o por propia iniciativa, el seguimiento y controlar la aplicación de las líneas de acción del Programa Bizkaia 21 y programas similares que apruebe la Diputación Foral.

3. Informar los planes y programas con incidencia en el desarrollo sostenible del Territorio impulsados por la Diputación Foral de Bizkaia en el ámbito de sus competencias.

4. Asesoramiento, a petición de los mismos, a los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia sobre programas de financiación en materia de sostenibilidad en las políticas municipales.

5. Aprobar sus normas de funcionamiento interno.

### Artículo 3.—*Composición*

1. El Consejo para la Sostenibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia estará integrado por un máximo de doce miembros, que serán designados de modo paritario por la Diputación Foral de Bizkaia y por las Juntas Generales de Bizkaia, garantizándose la representación de cada uno de los grupos junteros existentes en las Juntas Generales con al menos un representante.

2. El Consejo estará presidido por el/la diputado/a foral del Departamento que ostente la competencia de coordinación de las políticas de desarrollo sostenible. El/La Presidente/a no tendrá voto de calidad.

3. Garapen iraunkorrerako politikak koordinatzeko esku-mena duen zuzendaria izango da Kontseiluko idazkaria.

#### 4. artikulua.—*Bileretarako deialdia egitea*

Kontseiluko buruari dagokio bileretarako deialdia egitea, berak eskatuta edo gutxienez ere Kontseiluko lau kidek eskatuta. Kontseiluak gutxienez ere urtean behin egingo du bilera.

#### 5. artikulua.—*Funtzionamendua*

1. Kontseilua balio osoz eratzeko, beharrezkoa izango da Kontseiluko burua, idazkaria —edo, haien ordezkioak— eta kide erdiak egotea; Kontseiluko alderdi bakoitzaren gutxienez ere hiru kidek egon behar dute.

2. Erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira.

3. Kontseiluko buruak, berak eskatuta edo gutxienez Kontseiluko lau kidek eskatuta, baimena eman ahal izango du bilertan teknikariak egoteko, beharrezko iritziz gero.

4. Foru arau honetan edo Kontseiluak barne funtzionamendurako onartutako arauetan ezarrita ez dagoenerako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen Legeak araututakoa bete beharko da.

#### 6. artikulua.—*Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua azkentzea, eta haren xede eta helburuak bereganatzea.*

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua erakunde autonomoa azkentzen da; erakunde hori azaroaren 12ko 6/2008 Foru Arauaren bidez sortu zen («Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», 235 zk., 2008ko abenduaren 5a).

Bizkaiko Foru Aldundiek bereganatzen dituzte Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren xede eta helburu guztiak, beren jarduereremu eta eginkizunen arabera.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

#### Lehenengoa.—*Langileen araubidea*

Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuari atxikitako langileak Bizkaiko Foru Aldundira igaroko dira, erakunde autonomoa azkentzean langileok duten araubide juridiko berean.

Ondorioz, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuko langileak honela igaroko dira Foru Aldundiko plantillara: beren kontratuetan duten izaera edo modalitateari, lanbide-kategoriari eta ordainsari zein lan-baldintzei eutsita.

Langile horiek integratzeko Foru Aldundiak onartzen duen erabakian ezarriko dira langileak integratu eta atxikitzeko beharrezkoak diren antolaketa-jarduerak: azkendutako erakunde autonomoaren lanpostuak amortizatzea eta Bizkaiko Foru Aldundian lanpostu berriak sortzea eta atxikipen organikoak egitea.

#### Bigarrena.—*Ondare-araubidea eta eduki ekonomikoko eskubideak*

Foru arau hau indarrean jartzen denean Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua erakunde autonomoaren ondarea osatzen duten berezko ondasun eta eskubideak edo Institutuari atxikitakoak Bizkaiko Foru Aldundiaren ondarrera igaroko dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiak ondorio guztietarako izango du haien titulartasuna.

Foru arau hau indarrean jartzen den egunean likidatuko da Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren 2012ko ekitaldiko aurrekontua. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren kargura geratuko dira egun horretan kobratu gabe dauden eskubideak eta ordaindu gabe dauden betebeharrak, bai eta aurrekontu-programetako kredituen kudeaketa ere.

Egun horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko ekitaldiko kontabilitatean sartuko dira Institutuaren ondasun, eskubide eta betebeharrak.

3. Actuará como Secretario/a, el/la Director/a General que ostente la competencia de coordinación de las políticas de desarrollo sostenible

#### Artículo 4.—*Convocatoria de sesiones*

La convocatoria para la reunión del Consejo corresponderá al/la Presidente/a, a iniciativa propia o a petición de al menos cuatro representantes del Consejo, con un mínimo de una sesión al año.

#### Artículo 5.—*Funcionamiento*

1. Para la válida constitución del Consejo, se requerirá la presencia del/la Presidente/a, del/la Secretario/a o, en su caso, de quienes les sustituyan y de la mitad de los miembros del Consejo, debiendo asistir por lo menos tres representantes de cada una de las partes que lo integran.

2. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de los presentes.

3. Por parte del/la Presidente/a podrá autorizarse, por propia iniciativa o a solicitud de al menos cuatro de los miembros del Consejo, la presencia en las sesiones de los técnicos que se consideren necesarios.

4. Lo no recogido en la presente Norma Foral o en las propias normas de funcionamiento interno que el Consejo apruebe, se regulará por lo previsto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### Artículo 6.—*Extinción del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia y asunción de sus fines y objetivos*

Se extingue el Organismo Autónomo Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia creado por Norma Foral 6/2008, de 12 de noviembre («Boletín Oficial de Bizkaia» número 235, de 5 de diciembre de 2008).

La totalidad de los fines y objetivos del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia se asumen por los Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con sus áreas de actuación y funciones.

### DISPOSICIONES ADICIONALES

#### Primera.—*Régimen del Personal*

El personal adscrito al Instituto de Sostenibilidad de Bizkaia (ISB) pasará a depender de la Diputación Foral de Bizkaia con el mismo régimen jurídico que tuviese en el momento de la supresión del citado Organismo Autónomo.

En consecuencia, el personal procedente del ISB se integra en la plantilla de la Diputación Foral en los términos que resulten de la naturaleza o modalidad de sus respectivos contratos, manteniendo la categoría profesional determinada en su contrato así como su actual régimen retributivo y condiciones laborales.

El Acuerdo de Integración que a tal efecto apruebe la Diputación Foral establecerá aquellas actuaciones organizativas necesarias para la integración y adscripción del personal afectado, tales como amortización de puestos del extinto organismo autónomo, creación de nuevos puestos así como su correspondiente adscripción orgánica en la Diputación Foral de Bizkaia

#### Segunda.—*Régimen patrimonial y derechos de contenido económico*

Los bienes y derechos propios o adscritos que a la entrada en vigor de la presente Norma Foral integrasen el patrimonio del Organismo Autónomo Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia, quedarán incorporados al patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia, que ostentará la titularidad a todos los efectos.

El presupuesto del Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2012 se liquidará a la fecha de entrada en vigor de la presente Norma Foral. En consecuencia, los derechos pendientes de cobro y las obligaciones pendientes de pago a esa fecha, así como la gestión de los créditos de sus programas presupuestarios, quedaran a cargo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Con esa misma fecha se integraran sus bienes, derechos y obligaciones en la contabilidad de la Diputación Foral de Bizkaia del ejercicio 2012.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

**Bakarra.—Ordainsari- eta aurrekontu-araubidea**

Foru arau honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoak ukitutako langileek orain arte izandako ordainsariak jasoko dituzte, orain arteko kredituen kontura, harik eta dagozkion aurrekontuko aldaketak egin arte.

Horretarako, Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuaren gaur egungo aurrekontua Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontura igaroko da, eta, ondorioz, BFAk bere gain hartuko ditu langileen ordain-sariei lortuta dauden aurrekontuko kreditu guztiak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Bakarra**

Indargabetuta geratzen dira foru arau honen aurka dauden maila bereko edo behegokoko xedapen guztiak eta bereziki Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortzen duen azaroaren 12ko 6/2008 Foru Araua.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.—Ahalmena ematea**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak edo Lehen-dakaritzako Foru Saileko eta Ogasun eta Finantzen Foru Saileko titularrek (dagokionaren arabera) ahalmena izango dute antolamendu, aurrekontu edo ondarearen arloetan foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko eta jarduerak egiteko, baina, betiere, gastuan areagotzerik sortu gabe.

**Bigarrena.—Indarrean jartzea**

Foru Arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2012ko urriaren 31n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,  
JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,  
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1648)

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

**Única.—Régimen retributivo y presupuestario**

El personal afectado por lo establecido en la Disposición Adicional Primera de esta Norma Foral, seguirá percibiendo la totalidad de sus retribuciones con cargo a los créditos a los que venía imputándose, hasta que se proceda a las correspondientes modificaciones presupuestarias.

A tal efecto, el actual presupuesto del Instituto de Sostenibilidad de Bizkaia pasará a formar parte del presupuesto de la Diputación Foral de Bizkaia, y en este sentido, la DFB asumirá los créditos presupuestarios vinculados a las retribuciones del personal.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

**Única**

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Norma Foral y expresamente la Norma Foral 6/2008, de 12 de noviembre, por la que se crea el Instituto para la Sostenibilidad de Bizkaia.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—Habilitaciones**

Por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia o por los titulares de los Departamentos Forales de Presidencia y de Hacienda y Finanzas, según proceda, se dictarán cuantas disposiciones y actuaciones organizativas, presupuestarias y patrimoniales sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral, sin que las mismas supongan incremento de gasto alguno.

**Segunda.—Entrada en vigor**

La presente Norma Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 31 de octubre de 2012.

Secretario Primero de las Juntas Generales,  
JON ANDONI ATUTXA SAINZ

El Presidente de las Juntas Generales,  
ANA MADARIAGA UGARTE

(I-1648)

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Herri Lan eta Garraio Saila

#### Obra baimentzeko 2012/01031/01 espedienteaz atzera egiteari buruzko iragarkia.

Jon Bixente de Santiago Guijarrori bere helbidean jakinarazpena birritan egiten saiatu eta ezinezkoa izan denez beraz egitea administrazio honi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5. artikuluan ezarritakoa betez, jakinarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta interesatuak azken helbidea izan zuen udalaren iragarki-oholean ere jarriko da.

Hori dela-eta, zera jakinarazten zaio Jon Bixente de Santiago Guijarro jaunari (espediente-zenbakia: 2012/0728/01): BI-3438 Lekeitio-Ondarroa k.p. 56,440, foru errepidean, Mendexan sarbide berria eta itxitura egiteko eta mahastiak landatzeko egindako eskareren atzera egin izanari buruzko jakinarazpena duela Herri Lan eta Garraio Saileko Ustiapen Zerbitzuaren bulegoetan (Ibañez de Bilbao, 20. zk., 4. solairua. 48009 Bilbo): Jakinarazpena hamar egun

### Departamento de Obras Públicas y Transportes

#### Anuncio de desestimación del expediente de Autorización de obra 2012/00728/01.

Intentada sin efecto la práctica de la notificación en el domicilio de Jon Bixente de Santiago Guijarro, por dos veces, y no siendo posible haber realizado ésta por causas no imputables a esta Administración, en cumplimiento de lo estipulado en el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se procede a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», así como a su exposición en el tablón de edictos del Ayuntamiento del último domicilio del interesado.

A tal efecto, se pone en conocimiento de don Jon Bixente de Santiago Guijarro, (expediente número 2012/00728/01) que se encuentra a su disposición en las dependencias del Servicio de Explotación, del Departamento de Obras Públicas y Transportes (calle Ibañez de Bilbao, 20-4.ª planta 48009 Bilbao) notificación de desestimación en la solicitud instada para la construcción de nuevo acceso, cierre y plantación de viñedo, en la carretera foral: BI-3438